

ERRIGOITI. Busturian, bestalde, Urdaibaiko Ingurugiroa Ezagutzeko Zentroa egingo dabe



IRATXE ASTUI

Unibertsidade moduan hartzeko leku aproposa da Metxikas auzoan dagoen aterpetxea.

Ingurugiroaren ganeko unibertsidadea izan daiteke Metxikas auzoko basetxea

Aukeratu izan ezker, ekologia gaiak landuko litzatekez bertan

Iratxe Astui

Metxikas auzoan dagoen aterpetxea ingurugiroaren unibertsidadea hartzeko leku apropos moduan aurkeztu dau Errigoitiko Udalak. Holako zentro bat zabaltzearen ideia *Ocean Future Society* erakundearena izan da. Izan be, joan dan astean Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako hainbat txokoetatik ibili izan dan Jean-Michel Cousteau da alkartearen presidentea. Berto-

tik ebilela bisitau eban Cousteauk, antza, Metxika auzoko aterpetxea.

Basetxea dagoen lekua eta eraikinaren beraren ezaugarriak ezagutu eta gero, Metxika auzoko aterpetxea lehiaketarako hautagai izateko baldintzak beteten dauzala onartu izan dau Europako erakundeak be bai. Errigoiti herriagaz batera, Frantzia, Italia eta Greziako beste herri batzuek be aurkeztu dira ingurugiroaren unibertsidade

izateko hautagai moduan. Errigoitiko aterpetxea Aisilan taldeak gestionetan dau. Izan be, astialdirako enpresa horren birtatez jakin dau Errigoitiko Udalak ingurugiroaren unibertsidadea egitekotan egozala, European.

Unibertsidadea hartzeko aukeratu ezker, Europako hainbat herrialdetako ikasle helduko litzatekez Metxika auzoko aterpetxera, denboralditxoak emoten. Ekologia gaiak ez eze,

HAUTAGAIK

Frantzia, Grezia eta Italiako beste herri batzuetatik be unibertsidadea izateko eskaria egin dabe

ozeanografiaren arloagaz zerikusia daukiezan gaiak be jorratuko leukiez, zentroan.

Ingurugiroa Ezagutzeko Zentroa, Madariagan

Udan erabagi zan moduan, Busturiako Madariaga torretxean egin gura dabe, bestalde, Urdaibaiko Ingurugiroa Ezagutzeko Zentroa. Izan be, ekin deustie egitamuari, Eusko Jaurlaritzaren ardurapean, hain zuzen be.

Eskualdeko herrietatik, Gernika eta Busturiako udalek bakarrik egin eben holako zentro bat eukiteko eskaria. Gernikako kasuan, Idiga pabilioian ipintekoa zan aitatutako zentroa. Urdaibaiko Patronatuak egitamu biak aztertu ondoren, baina, Busturiako Madariaga torretxea Urdaibaiko Ingurugiroa Ezagutzeko Zentroa jartzeko lekuri aproposena zala erabagi eban. Zer esanik ez dago, Busturiako Urdaibaiko itsasadarren ikuspegi ederra daukala Madariaga torretxeak.

2005. urterako amaituta egoitea itxaroten dabe Madariaga torrea Urdaibaiko Ingurugiroa Ezagutzeko Zentroa lez egokitzeko beharrak. Proiektuaren aurrekontuaren arabera, hiru milioi euro inguru emon behar izango dauz Patronatuak. Eraikin bera eta kanpoaldea kontuan izanda, hain zuzen be.

Aprobetxau leikezan 2.300 metro koadroko azalarea dauka Busturiako Madariaga torretxeak. Azalera horri gehitu behar jako inguratzen dauen sei hektareko zelaia.

BERMEO

Marsel magoa agertuko da Udal kultur aretoko gaurko saioa eskaintzen

Marsel magoa konbitau dabe Bermeoko Udaleko Kultur Saileko arduradunek gaurko saioa eskaintzeko. *Magias potagias* titulupean, hainbat magia joko erakutsiko deustez Marsel magoak bertartzen diran umeei, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Nestor Basterretxea kultur aretoan eskainiko dau magoak bere ikuskizuna. Sarrereak 1, 80 euroan salduko dabez.

GERNIKA-LUMO

'Viva Quevedo' obrea eskainiko dabe, gaur, Lizeo antzokian

Gazteentzat egokituta dago, beren beregi, gaur bertan Lizeo antzokian eskainiko daben antezezlana. *Viva Quevedo* tituludun obrea izango da, hain zuzen be. Zuzendariek, barriz, eguneratu egin dabe obra klasiko horren testua. Izan be, Quevedoren berba idatziak pop musikearen eritmorea abestuko dabez aktoreek. Musikaz lagunduta entzungo diran olerkien tituluak honeek dira: *Poderoso caballero es Don dinero*, *Erase una vez un hombre a una nariz pegado* eta *Vivir quiero vivir a troche y noche*, hain zuzen be. Antzerki saioa 20:30ean hasiko da. Sarrerea 8 euroan salduko da. Gazte txartela izan ezker, 6 euro balioko dabe sarrereak.

AGENDEA

ESKUALDEA

Hegaztiak: Galipotaren eraginez itsas hegaztiren bat hil zorian aurkitu ezker, zapi bategaz tapau eta kutxa baten sartzea da egokiena. Haren bila etorri daitezten: 94-446 52 97.

BERMEO. Aurretik argitaratu bakoak izan beharko dira lan guztiak, eta euskeraz zein gaztelaniaz idatzita aurkeztu leitekez

Narrazino laburren lehiaketea antolatu dau Erroxape taldeak, Emakumeen egunerako

I.A.

Martxoaren 8ko ekitaldiei lotuta, Narrazino laburren lehiaketea antolatu dau Bermeoko Erroxape emakumeen taldeak. Aurtongoa, antolatzen daben zortzigarren lehiaketea izango da.

Hamazortzi urtetik gorako emakumeek hartu leikie parte narrazino lehiaketan. Urtero egiten dan moduan, euskeraz zein gaztelaniaz idatzi daitezke

narrazinoak. Lehiaketan agertzen diran oinarri-arauen arabera, 5 eta 8 orrialde bitarteko luzerea euki beharko dabe idazlanek.

Aurkezterako orduan, narrazinoaren hiru kopia atara beharko dauz egileak. Kartazal baten sartu eta gero, idatzitako beharrari emon deutson izenburua eta egilearen ezizena ipini beharko dauz lehiakideak, kartazalan. Narrazinoaz gan, beste kartazak txikiago bat aur-

NON AURKEZTU

Erroxape alkartearen egoitzan zein Joxe Miel Barandiaran liburutegian bertan jasoko dabez idazlanak

keztu beharko dau parte-hartzaileak, ondoko datuakaz: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia, hain zu-

zen be. Idazlanak, jakina, originalak eta argitaratu bakoak izan beharko dira.

Zezeilaren 20ra bitarte zabalik egongo da narrazinoak aurkeztu ahal izateko epea. Erroxape alkarteko egoitzan (Josefinak) eta Joxe Miel Barandiaran liburutegian jasoko dabez idazlanak.

Sariak

Idazle bakotxaren lan bat bakarrik saritu ahal izango da. Sari nagusi bi eskainiko deustez Erroxape taldeak modalidade bakotxeko irabazleei. «Halandaze, sari berezia eskainiko

deutsagu lehenen sailkatuta geratzen dan idazle bermeotarrari», azaldu eben Erroxape taldeko emakumeek, narrazino laburren lehiaketaren baldintza-arauetan. Euskerazko atalean, 360,60 euro eskuratuko dauz irabazleak. Bigarren saridunak, bestalde, 150,25 euro hartuko dauz. Gaztelaniazko atalean, barriz, 300,50 euro gordeko dira irabazlearentzat, eta beste 120,20 euro, bigarrenarentzat. Diruagaz batera, garaikurra be eskainiko jake irabazleei.

Idazlan originalak taldearen esku geratuko dirala ohartarazo dabe Erroxapeko kideek.